

Nik, JESUS M^a MADINABEITIA JAUREGUI jaunak, Oñatiko Udaleko behin behineko idazkari naizen honek,

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 92. bis artikulua eta gaikuntza nazionala duten toki-administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoaren arabera

Honako hau EGIATZATZEN DUT:

Idazkaritza honetan nire ardurapean dauden datuen arabera, tokiko gobernu batzarrak, 2024ko uztailaren 18an, ohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen, eta hitzez hitz transkribatuta dio:

“8.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: **Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdira aurkeztutako eskaeren lehenengo ebazpena onartzea.**

Alkate-udalburuaren 2024ko uztailaren 11ko proposamenak honela dio:

Unai Kortabarria (Sozioekonomiako teknikaria eta batzordeko idazkaria) 2024ko uztailaren 10ean egindako ebazpen txostenak eta Sozioekonomia informazio batzordearen sinatutako aktak honela dio:

Udaleko SOZIOEKONOMIA teknikaria naizen honek honako txostena ematen dut:

Espediente zk.:..... 2024ZDKO0018
Interesduna: OÑATIKO UDALA
.....
Gaia: Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzak
.....
Sarrera erregistroa: 2694, 2793, 3131, 3213, 3242

Jarraian azaltzen dira gai honi lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- Oñatiko Udalak, 2022ko martxoaren 31n egindako Osoko Bilkuran onartu zituen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak, 2022ko apirilaren 11n, 69. Zb.)

Bigarrena.- Oñatiko Udalak, 2024ko martxoaren 14an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean, onartu zuen Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen 2024ko deialdia. (Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua, 2024ko apirilaren 8an, 67. Zb.)

Hirugarrena.- Enpresa berriak sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2024ko deialdia kontuan izanda 2694, 2793, 3131, 3213 eta 3242 erregistro zenbakia duten eskaerak aztertu dira.

Gertakarien balorazioa.

Lehenengoa.- Aipatutako eskaerak aztertu ondoren jarraian zerrendatzen dira onartutako eskaerak eta bakoitzari dagokion dirulaguntza zenbatekoa:

ESKATZAILEA	IFZ	ESP. ZK.	DIRULAGUNTZA		
			SUST. LANPOSTUAK	ALOKAIRUA	GUZTIRA
ANDER ORUETA ALTUBE	***7694**	2024ZDKO0018/269 4	1.500€	Ez dagokio	1.500€
MARZENA MARIA WALERJANCZYK	***1656**	2024ZDKO0018/279 3	1.950€	2.500€	4.450 €
NAROA ALVAREZ GASCON	***1844**	2024ZDKO0018/313 1	1.950€	2.500€	4.450 €
LEIRE IGARTUA GONZALEZ	***4536**	2024ZDKO0018/321 3	1.950€	2.500€	4.450 €
ANE GALDOS BIAIN	***4399**	2024ZDKO0018/324 2	1.950€	Ez dagokio	1.950€

Marzena Maria Walerjanczyk-ek aurkeztutako 2793 erregistro zenbakia duten eskaerari dagokienez, dirulaguntza oinarrien 9. artikuluko 9.2 puntuan zehazten den bezala, merkataritza sektoreko jarduerak garatzeko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntzaren ordainketa alokairu gastuak justifikatu ostean egingo da, fakturak eta ordainagiriak aurkeztu eta laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean. Zuriketa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 10ean amaituko da.

Leire Igartua Gonzalez-ek aurkeztutako 3213 erregistro zenbakia duten eskaerari dagokienez, dirulaguntza oinarrien 9. artikuluko 9.2 puntuan zehazten den bezala, merkataritza sektoreko jarduerak garatzeko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntzaren ordainketa alokairu gastuak justifikatu ostean egingo da, fakturak eta ordainagiriak aurkeztu eta laguntza emateko baldintzak betetzen direla egiaztatu ostean. Zuriketa aurkezteko epea 2024ko urtarrilaren 10ean amaituko da.

Bigarrena.- Jasota dago kreditu egokia eta nahikoa dagoela 1 1000.480.241.01.01 2024 (389) diru atalean.

Horrenbestez, gertakari hauen azalpenak Sozioekonomia batzordean eman ostean, goian aipatutako dirulaguntza eskaerak onartzea eta ukatzea proposatzen diot Tokiko Gobernu Batzordeari.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, Tokiko gobernu batzarrak aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.“

Honela jasota gera dadin eta bere ondorioak izan ditzan hau sinatzen dut sinadura digitalean ageri den datan.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024ZDKO0018-TGB ziurtagiria/JGL certificado (OÑATIKO UDALA)